

Alaitz Vives

KAZETARIA

Harridura

S

altoki handi bateko arrandegian nengoen arrainez betetako erakusleihoa tarteko, bestaldean nuen saltzaileari zer eskatu nahi nion pentsatzen. Baina hark ez zidan niri begiratzen, nire sorbaldaren gainetik, ostean gertatzen ari zen zerbaiti begiratzen zion, harriduraz. Nik buelta eman nahi ez eta buruko keinuaz zer gertatzen ari zen galdetu nion: “Beitxuion, nire izeba moja ematein”. Jakin minez buelta eman eta burutik oinetarainoko soinekoa zeraman emakumezkoa ikusi nuen, aurpegia bistan zeraman eta oihalak aurpegia batzen zion, boro-bildu, ilerik ere ikusten ez zitzaiola. Eskuak eta oinetako sandaliak ikusten zitzaizkion baina batu-batu egindako aurpegi hark nire atentzioa erakarri zuen. Gizonezkoa eta erosketen gurdian sartuta jolasean zebiltzan bi mutil koxkor zituen ondoan. “Dauan beruakin sinistu ezindakua da”.

Eta halaxe egiten zuen, iraileko egun eguzkitsu eta sargoria. Saltokian ez zebilen jende gehiegi, arrain saltzailea ondoan zituen harategiko lankideengana hurbildu zen emakumeari begiratzeko esanez eta neu ere haraxe hurbildu nintzen erosi berri nuen arrain poltsa gurdian utzi ostean urdaiazpikoa eta gazta pusketa bat erostera.

Mostradore atzean horixe zen hizketarako gaia, hiru



DANI BLANCO

saltzaileen iritziz, (baita nire iritziz ere) moja janzkera zeraman emakumezkoa. Harategiko saltzaileak neu ere ohartuta nengoela ikusita, euren arteko elkarrizketan sartu ninduen: “Gizona majo, praka piratak sandaliak eta mahuka laburreko kamiseta jantzita, eta beituion bestiai! berak nahi duelako izango da baina...”. Lankideak: “Telebistan ikustia gauza bat da eta beste bat hau!”

Harategiko erosketak hartu ostean gainontzeko erosketak apaletatik jasotzen jarraitu nuen eta han-hemenka topo egin nuen familiarekin. Laukotea beste hainbatetan neu bezala ari zen erosketak egiten. Haurrak gurdian sartuta euren gustukoak ziren litxarkeriak erosteko gurasoak konbentzitu nahian.

Amak, goitik beherako jantzi gris zabalarekin, irribarre egin zidan ondotik pasa eta semeek gurdi barruan zeukaten “festari” begira. Familia arrunt bat zen, “berak nahi

duelako” eramango al zuen burutik oinetarainoko jantzia, baina ezin ba esan, harritu ez ninduenik.

Goiz hartan bertan bizikletaz pasieran nenbilela, seme-alabak ondoan zituela espaloitik oinez zihohan emakumezkoa etorri zitzaidan gogora. Burutik oinetarainoko soineko beltza zeraman soinean, begiak baino agerian ez zituela.

Inork uste al zuen harrituko ez ginenik! ■



TXANDAN

Castillo Suarez



Els Catarres musika taldearen *Jennifer* kanta maiz entzun dugu uda honetan Katalunian. Kantan gazte abertzale baten istorioa kontatzen da, abertzale eredugarriaren eskuliburuan zerrendatzen diren gauza guztiak egiten dituen: Barçako bazkidea da, Senyera dauka balkoian, CiUri ematen dio botoa, Lluís Llacén kantal entzuten ditu (Joan Manuel Serrat traidorea baita gaztelaniaz egiteagatik). Abertzalearen bizitza goitik behera aldatzen da Jennifer batekin maitemintzen denean: etorkinen alaba, Barzelonako gerrikoan bizi dena eta maila soziokultu-

Jennifer

ral apalekoa. Jordi Pujolek ezagun egin ditu *Jenniferrak*, *choniak* edo *Juaniak* (Bigas Lunaren pelikulako protagonistari erreferentzia eginez) Diadan aipatu zituelako, areago, oso gauza adierazgarria esan zuen: “Haiek ere Kataluniaren etorkizuna dira eta behar-beharrezkoa dugu bertako senti daitezen”. Izan ere, arazo handi bat dago soslaia horretako pertsonekin: gazteak izanagatik, ez dute katalanez hitz egiten. Gauza bera esan liteke ezkerraldeko Vanessei buruz. Izan ere, Euskal Herriak jende asko jaso zuen oso denbora gutxian, Katalunian bezala, eta integrazioa ez da erabatekoa izan. ■

